

## Proiektuaren aurkezpena

Gu Oianguren institutuko ikasleak eta Startinnova proiektuko partaideak gara. Administrazio eta Kudeaketa Oinarriko ikasgaiak proiektu honetan parte hartzeko aukera eman digu eta ilusio handiz ekin diogu lanari.

Sortu nahi dugun produktua egunerokotasunean oso erabilgarria den tresna da, edalontzien tapa bat, hain zuzen ere. Guri, gazteak garen aldetik, parrandan sortzen zaigun arazo handia ekiditeko asmoz aukeratu dugu produktu hau. Batez ere, parrandan edaria ez erortzeko edota inork inongo substantziarik (drogak) ez sartzeko helburua du gure proposamenak baina bakoitzak nahi duen erabilera eman diezaioke, adibidez, kafe edalontzi batean tapa moduan jartzeko. Gure ideia honek gizarteko arazo larri bati aurre egiteko aukera ematen dio, hain zuzen ere, bortxaketak ekiditeko. Zenbait bortxatzaile festako giroaz baliatzen dira, lehen esan bezala, gazteei beren edalontzietan substantzia toxikoak botatzeko, eta gure proiektuan sortuko dugun produktuarekin egoera horiek murriztu nahi ditugu. Horrez gain, dantza egiterako orduan, edalontziak eskuan izanda, edaria isurtzeko aukera galarazi nahi dugu.

Proiektu honen bidez hainbat gauza ikastea espero dugu. Hala nola, lan taldean lan egiten, horretarako komunikazioa oso garrantzitsua da. Bestalde, gure lehenengo negozio ideia da eta honen bidez negozio munduari buruzko hainbat kontzeptu berri ikasiko ditugu baita negozio munduak nola funtzionatzen duen ere.